

LEGE OHARRA: SARBIDE ETA ERABILERA BALDINTZA OROKORRAK.

WEB ORRIALDEAREN ETA BERTAKO EDUKIAREN JABETZA.

SA DAMMek (aurrerantzean, **SA DAMM**; IFK: A08000820; helbidea: Calle Roselló, 515, 08025 Bartzelona; Bartzelonako Merkataritza Erregistroan izena emana duena, 21167 Liburukian, 1. folioan, B17713 orrialdean) <https://kelerexperienciareal.com/> webgunearen erabiltzaileei jakinarazten die, webgunearen titularra den aldetik, zein diren webgunearen sarbide eta erabilera baldintzak.

SA DAMMen titulartasuneko edozein web orrialdetan sartzeak eta orrialde hori erabiltzeak berekin dakar erabiltzailearen aldetik Sarbide eta Erabilera Baldintza Orokor hauek osoki eta erreparorik gabe onartzea, kontuan izanik baldintzok indarrean egongo direla erabiltzailea aipatutako edozein web orrialdetan sartzen den aldiro. Baldintza Orokor hauek, beraz, arautu egiten ditu **SA DAMM**ek Interneteko erabiltzaileen esku dohainik jartzen dituen webgune sarbidea eta erabilera. **SA DAMM**en webguneren batean eskaintzen diren zerbitzu jakin batzuk erabiltzeak kasuan kasuko baldintza partikularrei jarraitzea eska dezake, eta ulertzen da zerbitzu horiek erabiltze hutsak berez dakarrela zerbitzuok onartzea.

Erabiltzaileak, **SA DAMM**en webguneetan sartzen denean, Lege Ohar hau irakurri izana baieztatzen du. **SA DAMM**en webguneak adinez nagusiak diren erabiltzaileei zuzenduta daude.

SA DAMMek ez du bermatzen bere web orrialdeetako edukiak Espainiatik kanpo egokiak izango direnik, ezta erabilgarri egongo direnik ere. **SA DAMM**en web orrialdeetako eduki guztiak edo zati bat Espainian ez beste herrialde batzuetan ilegaltzat jotzen badira, debekatuta egongo da eduki horiek eskuratzea.

COPYRIGHTA.

SA DAMMen webguneek Espainiako legeei jarraitzen diete. Webguneok, gainera, jabetza intelektual eta industrialari buruzko nazio mailako eta nazioarteko legediak babestuta daude.

SA DAMMen webguneetan dagoen informazio guztiaren jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak **SA DAMM**en titulartasunekoak dira; informazio horren artean, besteak beste, honako hauek: diseinu grafikoa, marrazkiak, logotipoak, irudiak, aurkibideak, testuak, audioak, bideoak, softwarea, diseinua eta identifikazio zeinuak; bai eta iturburu kodeak, nabigazio egitura, datu baseak eta bertan gordetzen diren elementu guztiak ere, salbu eta erabiltzaileak hiperesteken bidez eskura ditzakeen hirugarrenen edukiak.

Erabiltzaileek **SA DAMM**en web orrialdeak eskuratu eta erabiltzea ez da inondik inora ere erabilera lizentzia bat ematearen parekotzat joko; ezta **SA DAMM**en nahiz bere egile legitimoen inolako aktiborako eskubideren parekotzat ere. Beraz, hori egiteak ez du berekin ekarriko ez lagapenik ez transmisiorik ez jabetza intelektual edota industrialeko eskubideei uko egiterik.

SA DAMMek dagokio bere webguneetako edukia edozein formatan ustiatzeko eskubideak eskusiboki erabiltzea; bereziki, erreproduktzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketa eskubideak.

Debekatuta dago **SA DAMM**en web orrialdeetan dagoen informazioa erreproduzitu, kopiatu, banatu, eraldatu, argitaratu eta informazio horrekin bestelako edozein jarduera egitea; gauza

bera orrialdeon diseinua eta bertako materialen hautaketa eta aurkezpen eredia edozein xede eta baliabideren bidez eta **SA DAMM**en edo egile legitimoaren berariazko baimenik gabe erabiltzeari dagokionez.

SA DAMMen web orrialdeetan dagoen informazioa baimenik gabe erabiltzeak, aldatzeak eta datuak ezabatzeak, eta **SA DAMM**en jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak urratzeak, berekin ekarriko dute legez xedatzen diren erantzukizunak aplikatzea.

ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA.

Webguneon erabiltzaileak arriskua beren gain harturik sartzten dira bertan. Hori egitean, webguneak legeen eta trafiko usadioen arabera erabiltzea onartzen dute, eta **SA DAMM**en edo beste enpresa batzuen aurrean erantzun beharko dute, betebeharrak ez betetzearen ondorioz edozein kalte eginez gero.

Bai **SA DAMM**en webguneetara sartzea bai webguneotako informazioa nola erabiltzen den ere, hori egiten duenaren erantzukizun eskusiboa da. **SA DAMM**ek ez du erantzungo informazio hori eskuratu eta erabiltzeagatiko ondorio eta kalteengatik.

SA DAMMek ez ditu bere gain hartzen **SA DAMM**en web orrialdeetan sartzearen ondorioz edo bertako informazioa nahiz aplikazioak erabiltzearen ondorioz gerta daitezkeen segurtasun akatsak; ezta erabiltzailearen sistemak edo bertan biltegitratutako fitxategiek eta dokumentuek izan ditzaketan kalteak ere.

SA DAMMek ez du inolako erantzukizunik hartzen ez bere webguneetan aipatzen diren hirugarrenen estekak eta edukiak emateagatik ez hirugarrenek hiperesteketan sartutakoengatik. Hiperesteka ezartzeak, berez, ez dakar inondik ere **SA DAMM**en eta hiperesteka ezartzen deneko web orrialdearen jabearen artean harremanik egotea, ezta haren web orrialdeetan eskaintzen diren eduki eta zerbitzuak onartzea ere. Era berean, **SA DAMM**ek ez du bermatzen erabiltzailearen sistema informatikoan, dokumentuetan edo fitxategietan alterazioak eragin ditzaketan birusik edo bestelako elementurik ez egotea. Hala, **SA DAMM** hirugarrenen esteketan sartzearen ondorioz erabiltzaileak izan dezakeen edozein kalteren erantzukizunetik kanpo gelditzen da.

FORMATUA ETA ALDAKETAK LEGE OHARREAN.

SA DAMMek ez du bermatzen bere web orrialdeetan dagoen informazioaren edo zerbitzuen egokitasuna, fidagarritasuna, eskuragarritasuna eta zehaztasuna. Web orrialdeok aurrez jakinarazi gabe aldatu edo ezabatu ahal izango dira, beti ere legeak informazioaren inguruan jasotzen duena errespetatuz.

SA DAMMek eskubidea dauka, aurrez jakinarazi gabe eta edozein unetan, aldi batez bere web orrialdeetarako sarbidea eteteko, eta eskubidea dauka, halaber, orrialdeetan, eskainitako zerbitzu eta informazioetan, orrialdeon aurkezpen eta kokapenean eta orrialdeon sarbide eta erabilera baldintzetan egoki irizten dituen aldaketak egiteko.

DATUEN BABESA.

SA DAMMek, bere webguneen titular gisa, erabiltzaileei jakinarazten die bera dela webguneon bidez datu pertsonalei egiten zaien tratamenduaren erantzulea, tratamendu konkretu batean bestelako baldintza batzuez berariaz informatzen denean izan ezik.

Datuak babesteari buruz aplikatzekoa den legedian xedatutakoari jarraituz, **SA DAMM**ek errespetatu egiten du bai erabiltzaileen pribatutasuna bai datu pertsonalen sekretua eta segurtasuna; horretarako, behar diren legezko neurri tekniko eta antolamenduzkoak hartzen ditu emandako datu pertsonalak galdu, gaizki erabili, baimen gabe eskuratu eta lapurtzea ekiditeko, kontuan harturik teknologiaren egoera, datuen izaera eta datuok dauzkaten arriskuak.

SA DAMMen webguneen erabiltzaileen datu pertsonalak soilik tratatuko dira egokiak, beharrezkoak eta ez-gehiegizkoak direnean, datuok biltzeko aintzat hartu den esparrua eta xedeak kontuan hartuta. Tratamendua, beraz, kasu bakoitzean erabiltzaileei adierazi zaizkien xedeetara mugatuko da.

SA DAMMen webguneen bidez datu pertsonalak biltzen diren aldiro, aurrez erabiltzaileari jakinaraziko zaizkio -argiro eta zalantzarako tarterik utzi gabe- haren datuak tratatzearen inguruko zirkunstantziak, datuak babestearen inguruko gaietan une bakoitzean indarrean dauden eskakizunen arabera. Era berean, **SA DAMM**en webguneen bitartez emandako datu pertsonalak gorde egingo dira interesdunak (i) ezabatzea edo zuzentzea eskatzen ez duen bitartean, (ii) bere datuak tratatzen segitzearen aurka agertzen ez den bitartean eta (iii), bere baimena behar duten tratamenduetan, baimen hori baztertzeko ez duen bitartean. Adierazi berri dugunaren kalterik gabe, eta aipatutako epeen osagarri, datuak ondo blokeatuta gordeko dira, eta soilik izango dituzte eskuragarri epaile eta auzitegiek, Fiskaltzak eta Administrazio Publiko eskudunek, bereziki datuak babesteko aginteek, 3 urteko epe batez, datuok erabiltzeagatik planteatu daitezkeen erreklamazioei aurre egiteko.

SA DAMMek erantzun egingo dio interesdunek legez aitortutako eskubideak erabiltzeari buruz egindako edozein eskaerari. Horretarako, hona jo behar da: **SA DAMM**. (OFICINA PRIVACIDAD, Calle Roselló, 515, 08025 Bartzelona), edo bestela, helbide elektronikoa honetara: privacidad@keler.eus

Erabiltzaileak **SA DAMM**en Pribatutasun Politika irakurri behar du, non datuak babesteari buruzko informazio xehatuagoa aurkituko duen.

APLIKATZEKO DEN LEGEDIA.

SA DAMMen web orrialdeei buruzko gai guztiak Espainiako legediari jarraituko diote. **SA DAMM**ek eta erabiltzaileek, beste edozein foruri berariaz uko eginez, men egiten diote Bartzelonako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari.

SA DAMMen web orrialdeetan jasotzen den informazio guztia **SA DAMM**ei dohainik lagatako informaziotzat joko da.

Edozein erreklamazio, kontsulta edo iradokizun aurkeztu nahi izanez gero, <https://www.keler.eus/eu/hasiera#Harremanetarako> webgunean dagoen harremanetarako atalaren bidez egin daiteke.